

AUTOKONTSUMORAKO INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK


✓ ZER DIRA?

Energia berriztagarria sortzen duten instalazioak dira. Eguzkiaren erradiazioa energia elektriko bihurtzen dute, efektu fotovoltaikoaren bidez (korrante elektriko baten sorrera ukipenean dauden bi materialen artean erradiazio elektromagnetiko batek eragiten dienean). Oro har, bi instalazio fotovoltaiko mota bereiz ditzakegu: sare elektrikora konektatuta daudenak eta isolatuak.

✓ INSTALAZIO ISOLATUAK

Instalazio fotovoltaiko ezohikoenak energia metatzeko ekipoa (bateriak) dituztenak edo isolatuak dira. Honen arrazoi nagusiak baterien instalazioarekin zerikusia duten eragozpenak dira, inbertsio, mantentze-lan eta espazio handiagoak behar baitituzte, bizitza erabilgarri laburragoa izateaz gain.

Instalazio fotovoltaiko isolatuak, seinaleztapen, ponpaketa, komunikazio edo landa-eremuetako elektrifikazio lanetan erabiltzen dira nagusiki, baita gaueko kontsumo jarraitua dagoen lekuetan ere.




1. Irudia – Instalazio fotovoltaiko isolatu baten eskema.

✓ SARERA KONEKTATUAK

Instalazio fotovoltaiko ohikoenak sare elektrikora konektatutakoak dira, eta batez ere argindarraren sorkuntza eta salmentarako erabiltzen dira, baita etxeetako autokontsumorako ere.

Sare elektrikora konektatutako instalazioek energia bertatik har dezakete sortzen ari ez direnean (gauetz, adibidez), edo sarera isur dezakete sorkuntza kontsumoa baino handiagoa denean (eguneko erdiko orduetan, adibidez).



2. Irudia – Sarera konektatutako instalazio fotovoltaiko baten eskema.



Energia Bulegoa
OARSOALDEA



ERRENTERIA
UDALA



Lezoko Unibertsitateko Udala



Oarsoaldea
Gipuzkoako Oarsoaldea



OIARZLINGO
UDALA



PASAIKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Jasangarritasun
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Sostenibilidad


INSTALAZIO BATEN DIMENTSIONAMENDUA

✓ GARRANTZIA HANDIA

Gure etxe edo negozioan panel fotovoltaikoak jartzeko orduan, kontuan hartzeko alderdi garrantzitsuenetako bat da modu egokian dimentsionatzeko beharra, ezagutza zabala eskatzen duen lana.

Instalazio fotovoltaiko baten dimentsionamendua bere neurria zehaztean datza, hau da, panelen kopurua eta ezaugarriak (potentzia, eraginkortasuna, tamaina), instalazioaren lan-tentsioa, inbertsore mota, karga-erreguladorearen ezaugarriak, eta baterien edukiera eta kopurua instalazio isolatuen kasuan.

Instalazio fotovoltaiko bat behar bezala dimentsionatzeak eragin zuzena du hasierako inbertsioaren errentagarritasun eta amortizazioan, gaindimentsionatzeak behar duguna edo autokontsumitzeko gai garena baina askoz energia gehiago sortzea eragingo baitu.



3. Irudia – Panel fotovoltaikoak dituen etxe baten sorkuntza eta kontsumo elektrikoak egunean zehar.

Dimentsionatzea optimizatzeke, honako alderdi hauek hartu behar ditugu kontuan:

- Ohiko moduan kontsumitzen dugun energia elektriko kopuru osoa.
- Eguzki-orduetan kontsumitzen dugun energia elektriko kopurua.
- Gure kontsumo energetikoko ohiturak.
- Gure etxetresna elektrikoak eta haien ezaugarriak.
- Instalazioa bat gauzatzeko dagoen espazioa.
- Panelentzako orientazio-aukerak.
- Bizi garen zona klimatikoa.



Energia Bulegoa
OARSOALDEA



ERRENTERIA
UDALA



Lezoko Unibertsitateko Udala



Oarsoaldea
Gure etxearen energia proiektuak



OIARTZUNGO
UDALA



PASAIAKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Jasangarritasun
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Sostenibilidad

SOBERAKINEN KONPENTSAZIOA


✓ KONPENTSAZIO SINPLIFIKATUA

Instalazio ezarri ondoren, sorkuntza handieneko orduetan soberakinak sortuko ditugu eta, sarera konektatutako instalazioa bat badaukagu, soberakinen konpentsazioa duen tarifa bat beharko dugu.

Kompentsazio sinplifikatua soberako energia saretik hartutakoarekin trukatzeko mekanismo bat da, saldo ekonomiko bat sortuz. Hau da, kWh kopuru baten ordean, fakturatik deskontatuko den diru kopuru bat zenbatzen da.

Sare elektrikora isurtzen dugun energiagatik ez da ez kargurik ez bidesaririk ordaindu behar. Soberakinak konpentsatzeko modalitateari heltzeko baldintzen artean, honako hauek ditugu: energia jatorri berriztagarrikoa izatea, instalazioak 100 kW-eko potentzia ez gainditzea, eta instalazioaren onarpena konpainia banatzailearekin izapidetzea (I-DE Redes Eléctricas Inteligentes Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan).

Hilabeteren batean konpentsatu beharreko diru-saldoa saretik hartutako energiaren kostua baina handiagoa bada, soberakin hori galdu egingo da. Hala ere, zenbait tarifak arazo horri irtenbidea ematen saiatzen diren mekanismoak dituzte, batera birtualak kasu.



Bateria birtualek soberakina gorde eta etorkizunean edo beste etxebizitza batean konpentsatzeko aukera ematen dute, sortu dugun argindararren aprobetxamendua maximizatuz.

✓ KONPENTSAZIOA DUTEN TARIFAK

Soberakinak konpentsatzen dituzten tarifen artean, tarifa arrunten antzera, arautua eta merkatu askekoen artean bereiz dezakegu.

PVPC tarifa arautuan, soberakinen prezioa kontsumo-prezioaren antzerako moduan kalkulatzen da, orduz ordu, handizkako merkatuaren arabera; beraz, bi prezioak paraleloki igotzen eta jaisten dira.

Merkatu askearen barruan, tarifa finkoak, kontsumitutako energiarentzat zein isuritakoarentzat ezarritako prezioekin, eta prezio aldakorreko tarifa indexatuak bereiz ditzakegu.

Tarifa egokiena, saretik hartutako energiagatik, bai termino finkoan bai aldakorrean, prezio ona eskaintzen diguna, sarera isuritako soberakinengatik prezio ona ordaintzen diguna, eta fakturako kontzeptu gehien (termino aldakorra, termino finkoa, karguak eta bidesariak, etab.) konpentsatzen dizkiguna izango da.



Energia Bulegoa
OARSOALDEA



ERRENTERIA
UDALA



Lezoko Unibertsitateko Udala



Oarsoaldea



OIARTZLINGO
UDALA



PASAIKO UDALA



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Jasangarritasun
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Sostenibilidad

AUTOKONTSUMO KOLEKTIBOA



ZER DA?

Autokontsumo kolektibo edo partekatua autokontsumo modalitate bat da, non hainbat kontsumitzailek sorgailu fotovoltaiko berean sortutako energia partekatzen duten, modu adostuan banatzen dutelarik.

Etxebizitza-erakinetarako, enpresa-parkeetarako edo bizitegi-eremuetarako pentsatutako energia autokontsumorako modalitatea da. Haren eskakizunen artean, sorgailuaren eta kontsumitzaile bakoitzaren arteko gehieneko distantzia 2 km izan behar dela ageri da.

ENERGIA KOMUNITATEAK



ZER DIRA?

Autokontsumoaz eta autokontsumo partekatuz haratago, energia komunitateak pertsona-taldeek, enpresek, elkarteek, administrazio publikoek eta abarrek osa ditzaketen entitate juridikoak dira, hala nola kooperatibak adibidez, energia berriztagarria sortu, kontsumitu eta irabazte-asmorik gabe salduz, ingurumen, gizarte eta ekonomia onurak lortzea helburutzat dutenak



ENERGIA KOMUNITATEAK OARSOALDEAN

EKIHERRI – Erreneriako Energia Berriztagarrien Komunitatea

<https://ekihherri.eus/>

600 579 249 (astelehenetik ostegunera 17:00 – 19:00)

info@ekihherri.eus

ARGITTURRI - Oiartzungo Energia Berriztagarrien Komunitatea

<https://argitturri.eus/>

info@argitturri.eus

Energia Komunitatea Lezon

Sortze bidean dago, herritarren eta Iratzerri tokiko iraunkortasun elkartearen interes eta ekimenari, eta Lezoko Udalaren babesari esker.



Energia Bulegoa
OARSOALDEA



ERRENERIA
UDALA



Lezoko Unibertsitateko Udala



Oarsoaldea
Energia Berriztagarrien Komunitatea



OIARTZUNGO
UDALA



PASAIAKO UDALA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Jasangarritasun
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Sostenibilidad

DIRULAGUNTZAK

✓ **EEE/EVE**

Energiaren Euskal Erakundeak energia berriztagarrian instalatzeko laguntza-programak ireki ohi ditu aldian-aldian.

<https://www.eve.eus/Programa-de-ayudas?lang=eu-es>

✓ **EMET**

Eusko Jaurlaritzak ekintzailtzarako eta turismo-enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntza-programa bat argitaratzen du urtero, EMET deritzona, eta turismo-sektorearen iraunkortasuna handitzeko eta ingurumen-inpaktua murrizteko laguntzak ematen ditu.

Jardunak	Gutxieneko inbertsioa (€)	Laguntza %	Gehieneko dirulaguntza (€)
2.3. eskaintza turismo segurura, jasangarrira, arduratsura eta irisgarria bideratzea	5.000	30	15.000
2.3.1. Turismo jarduerak ingurumen inpaktu txikiagoa izatea			

<https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/2024/emet-2024/web01-tramite/eu/>



Energia Bulegoa
OARSOALDEA



ERRENTERIA
UDALA



Lezoko Unibertsitateko Udala



Oarsoaldea
Gipuzkoako Udalen Batzarra



OIARTZELINGO
UDALA



PASAIKO UDALA

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Jasangarritasun
Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de
Sostenibilidad

ZERGA HOBARIAK

ERRETERIA

Ondasun Higiezin Zergan (OHZ) hobaria 5 urtez, autokontsumorako energia sortzeko sistemak beren borondatez instalatzen dituzten edo hornidura puntuak Energia Komunitate batean parte hartzen duten etxebizitzentzako pasibo titularrentzat (instalazioaren potentzia **300-999 Wp** artekoa denean **% 25**-eko hobaria, eta **1 kWp-tik gora % 50**-ekoa).

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan % 95eko hobaria, eguzki-energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak sartzen direnean.

Udalerriko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion kuotaren % 35eko hobaria, udal kuota ordaintzen duten subjektu pasiboentzat, energia erabili edo ekoiztea energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioetatik edo kogenerazio sistemetatik abiatuta egiten badute, edo Energia Komunitate baten kide badira.

[Zerga ordenantzak – Erreterriako Udala](#)

LEZO

Eraiketa, Instalazio eta Obren gaineko Zergan % 95eko hobaria, borondatez egindako energia berriztagarrien instalazioentzako.

Udalerriko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan dagokion kuotaren % 10eko hobaria, udal-kuotagatik zergak ordaintzen dituzten subjektu pasiboentzat, energia erabili edo ekoiztea energia berriztagarriak aprobetxatzeko instalazioetatik edo kogenerazio sistemetatik abiatuta egiten badute.

[Zerga ordenantzak - Lezoko Udala](#)

OIARTZUN

Ondasun Higiezin Zergan (OHZ) % 50eko hobaria 5 urtez, eguzkitik datorren energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak beren borondatez instalatzen dituzten etxebizitzentzat.

Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko zergan % 95eko hobaria, eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektriko ahalbidetzen diren sistemak ezartzen badira autokontsumoari begira.

[Ordenantzak - Oiartzungo Udala](#)

PASAIA

Eraikin, Instalazio eta Obren gaineko zergan % 50eko hobaria, eguzki energiaren eta beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektriko ahalbidetzen duten sistemak ezartzen badira.

[Zerga Ordenantzak - Pasaia](#)



Energia Bulegoa
OARSOALDEA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Jasangarritasun Departamentua



Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Sostenibilidad

ESKUALDEKO ENPRESA INSTALATZAILEAK



PARTIKULARRENTZAKO ZERBITZUA

EKAIN TALDEA

Amasa kalea 6. Errenteria.

www.ekain-taldea.com

943 340 509

ekain@ekain-taldea.com

IEG Energía

Astigarragako bidea 2, Mamut bulego eraikina, 2. solairua ezkerrean, 4. bulegoa. Oiartzun.

www.iegenergia.com

943 100 767

info@iegenergia.com

KBL Elektrizitatea

San Marko errepidea 32, 4. lokala A2 Pavinsa eraikina. Pasaia.

www.kblektrizitatea.eus

679 495 292



ENPRESENTZAKO ZERBITZUA

ORION SOLAR

Astigarragako bidea 2, Mamut bulego eraikina, 3. solairua ezkerrean, 17. bulegoa. Oiartzun.

www.orionpro.net

943 311 619

info@orionpro.net



Energia Bulegoa
OARSOALDEA

